

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DITUEN SOZIETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2011.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2011ko ekitaldiaren Urteko Kontuen fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako bik baterako boto partikularra egin dute.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu langileria eta ondasunen kontratazio, hornidura eta zerbitzuen alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du EITBk eta mendeko sozietateek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, kontratazioaren atalari dagokionez, HKEEk adierazi du dagokion espedientea bideratu gabe 0,4 milioi euroren gastuak erregistratu direla eta 0,3 milioi euroren zerbitzu espediente bat publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu dela; ordea, hurrenez hurren, publikotasundun prozedura negoziatu bidez edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen.

Langileriari dagokionez, HKEEk azpimarratu du 2011ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionaletarako irispidea 5 pertsonak izan dutela Erakundearen sorrera legeak aurreikusten duen “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta; horietatik 3k ez zuten aldeztatik kontratu-loturarik erakundearekin, ez eta goi kargudun kontraturik ere; honenbestez, lan kontratu finkoak egin zaizkie merezimendu eta gaitasun printzipioak batera bete gabe, aipatutako Legeak agintzen duen moduan.

Erakundearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu Bateratuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.